



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# **FAMILIA-MOTAK HAUR LITERATURAN. GRADU AMAIERAKO LANA.**

EGILEA: Pérez de Obanos Jiménez, Ainara.

ZUZENDARIA: Etxaniz Erle, Xabier.

**2019/2020 Ikasturtea.**



## 1. LABURPENA

Hurrengo lerroetan familiaren kontzeptua haur literaturan izandako eragina aztertuko da. Liburu horietan familia-motak izan duten trataera ikustea da txosten honen helburu nagusia. Ikustea, batez ere, literaturak, gizarteak bezala, aurrera pauso bat eman duen familiei eta existitzen diren hainbat motari dagokionez, edo ez. Hori lortzeko, analisi bat burutu da non bai teoriak bai praktikak garrantzi handia izan duten. Emango den informazioaren oinarri moduan erabili direlako bata zein bestea. Gainera, gai honi buruz inoiz hausnartu ez duten pertsonentzat zenbait izenburu baliagarri proposatuko zaizkie lanean zehar, azalduko den informazioaren adibide izango direnak. Gainera, gure gizartean garrantzitsuak diren gaur egungo gaietan ere ikuspuntua jarriko da, beti ere hasierako gaitik gehiegi aldendu gabe. Bereziki aipatuko den gai hori adopzioa izango da.

Horretaz aparte, aipamen berezia egin nahi zaio kontzientziatzearen garrantziari. Familiaren terminoa gure gizartean jasotzen ari duen aldaketaren aurrean errespetuz jokatzeko eta aurrerapen horiek azaltzen dituzten azalpenak eskaintzea haurrei, haien mundua ulertzen laguntzeko. Munduko ume guztiak ez dira familia tradizional baten parte, hau da, guztiok ez dituzte ama bat eta aita bat etxean. Beraz, edozein familia-mota duen pertsona baten aurrean naturaltasunez jokatzeko garrantzia nahiko handia da.

Lana aurrera eramateko erabili den metodologia, batez ere, informazioaren bilaketan oinarritu da. Horrekin batera, analisia burutzeko beharrezkoak izan diren liburuak eta ezagutza propioak erabili dira baita ere.

## **RESUMEN**

En las próximas páginas se pretende analizar el impacto que el concepto de la familia ha dejado en la literatura infantil. El mayor objetivo es ver que tratamiento se le ha dado a los diferentes tipos de familias en la literatura. Observar, sobre todo, si la literatura, al igual que la sociedad, ha dado un paso adelante para incluir esta situación. Para conseguirlo, se ha llevado a cabo un análisis donde la teoría y la práctica tienen mucha importancia. Ya que cada información que se presente estará basada tanto en una como en la otra. Además, para aquellas personas que nunca han recapacitado sobre el tema de las familias en la literatura infantil, a lo largo de este trabajo se le presentarán varios títulos que pueden ser de ayuda. Los cuales son buenos ejemplos para la información que se quiere hacer llegar. También se tratarán



temas de mucha importancia en esta sociedad, siempre sin salirse del tema principal. Uno de esos temas es la adopción.

A parte de eso, se le quiere hacer un llamamiento a la importancia de concienciar a las personas. Actuar con absoluto respeto ante los cambios que el término de la familia está atravesando en nuestra sociedad y la necesidad de hablar con los niños/as al respecto para ayudarles a comprender el mundo en el que habitan. Porque todos los niños/as no son parte de una familia tradicional, esto es, no todos tienen una madre y un padre co-habitando con ellos/as en casa. Por tanto, actuar con naturalidad ante todos los diferentes tipos de familias es bastante importante.

Para llevar a cabo el trabajo la metodología utilizada se ha basado, mayormente, en la recopilación de datos en la red. También en los libros utilizados para el análisis y mis propios conocimientos sobre el tema.

## **ABSTRACT**

On the following lines we are going to analyse the impact the family has on children's literature. The main aim is to see how the different types of families take part on those books. To see, in fact, if literature has given a step forward as our society has done to include all the different types of families. To prove that, theory and practice will be needed as an important part of it because every piece of information will be based on those. Also, for the people who has never thought about the idea of different families in literature, some interesting and useful book titles will be included. Which, by the way, serve as perfect examples for the information that is going to be explained. Some other interesting topics will be included but without stepping back from the main issue. One of those topics will be adoption.

Apart from that, a special mention will be made about raising awareness about this situation. The importance of showing respect to the changes that families are going throw in the world right now and the necessity of talking about those situations with children to help them understand the world they live in. Because not every kid is part of a traditional family, which means not every little boy or girl out there lives with a mum and a dad. It is important to see this new society as natural as possible.

The methodology used on this assignment is the information found online plus the books required for the test and my own knowledge about the different topics.

## **AURKIBIDEA**

1. LABURPENA .....	1
2. SARRERA .....	4
3. JUSTIFIKAZIOA .....	5
4. MARKO TEORIKOA .....	6
4.1. Familia .....	6
4.1.1. Familien sailkapena .....	6
4.1.2. Familia-mota posibleak .....	7
4.2. Familia-motak Euskadin .....	9
4.3. Adopzioa .....	10
4.4. Haur Literatura .....	12
4.4.1. Definizioa .....	12
4.4.2. Familien aniztasuna HGLn .....	12
4.5. Gai berdinak aztertu duten lanak. ....	13
5. IKERKETA .....	14
5.1. Hipotesiak .....	14
5.2. Metodologia .....	14
5.3. Analisia .....	15
5.4. Emaitzak .....	27
6. ONDORIOAK .....	29
6.1. Hipotesiak aztertzen .....	29
6.2. Beste lan batekin konparatuta .....	30
6.3. Iritzi pertsonala .....	31
7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK .....	34
8. ERANSKINAK .....	37

## 2. SARRERA

Munduan azken urteetan gertatu izan den aldaketa gizartean aztertzeko helburuarekin idatzi da txosten hau. Konkretuki, familien arloan egondako aurrerapenari egingo zaio erreferentzia.

Orain dela urte batzuk arte ezagutu den familia mota bakarra (edo gutxienez, ohikoena eta onartuena) tradizionala izan da, hau da, ama, aita eta seme-alabak osatzen duten entitatea. Urteak pasa ahala, gauzak asko aldatu dira. Hainbat motatako familia-motak ezagutzen dira gure gaur egungo gizartean, esaterako, bi ama haien seme-alabekin, bi aita egoera berdinean, edo guraso bakarra duten haurrak – ama edo aita – .

Txosten honetan zehar ikuspuntuak familietan eta literaturan egongo dira, nagusiki. Lanaren abiapuntua izango da marko teorikoa, non helburua den azaltzea zer den familia edo nola ulertzen dugun familiaren kontzeptua gure gizartean eta zer nolako aurrerapena izan duen urteen poderioz. Horrekin batera, egon daitezkeen hainbat familia-mota azalduko dira, azalpen labur batekin batera. Jarraian, aztertuko dira familia-motak Euskadin 2001.urtean (hori delako 'Eustat' web orrialdeko azterketa egiteko erabili zuten urtea). Gainera, adopzioaren kontzeptuak gaiarekin lotura estua duenez, horri buruz hitz egingo da baita ere. Ondoren, haur literaturaren kontzeptua azalduko da eta lanaren helburuari sarrera egingo zaio aniztasunari buruz hitz egiten. Marko teorikoari amaiera emateko, gai berdina edo antzekoa aukeratutako beste pertsona baten lana kontuan hartuko da konparaketa egiteko (lan honekin alderatuz).

Marko teorikoaz aparte, azterketa bat burutu da. Hainbat libururen analisia egin da zenbait hipotesi erantzuteko, hori litzateke txostenaren hurrengo atala. Gero, lan hau aurrera eramateko erabili den metodologiaren azalpena txertatuko da non lan prozesua azalduko den. Jarraian, aipatutako azterketa egiteko beharrezkoak izan diren fitxak agertuko dira, non liburu bakoitzak erabili duen familia-mota azaltzen den eta hipotesiei erantzuna emango zaien. Horrekin batera, sortutako hipotesi horien emaitzak agertuko dira, ikusiko da orduan sortutako aurreiritziak bete diren edo ez.

Lanari amaiera emateko, iritzi pertsonala txertatuko da non, berez, iritzia nabaria izango den.

### **3. JUSTIFIKAZIOA**

Ikuspuntu pertsonal batetik abiatuta, lan hau familien presentzian oinarritzen da. Pertsona horiek guztion bizitzetan leku bat hartzen dutelako eta beharra dagoelako ulertzeko familia guztiak desberdinak direla. Haurrei detaile hori jakinarazi behar zaie eta bide egokia litzateke literatura. Beraz, haur literaturan familien aniztasuna lantzea garrantzi handiko gauza bat da eta horri buruzko informazioa zabaltzea baita ere.

Proposamen honen garrantzia erakusteko eta aurkezteko modu asko daude, baina, kasu honetan, analisi bat egingo da ikusteko zein den benetako egoera gure gizartean eta nola errealitate hori haur literaturara eraman den, eraman baldin bada. Horretarako, teoria erabiliko da azalpenak emateko eta praktika, azterketa eta analisisa egiteko.

Beste alde batetik, garrantzi sozial eta kulturala handia duen gaia da hau. Gure gizartean ematen da eta kultura bakoitzean modu desberdin batean ulertzen den zerbait deritzo. Hori dela eta, azterketa berezia eta sakona behar du, guztiok ulertzeko haren garrantzia. Ikuspuntu akademikotik, gai hau aztertzeke beharra nabarmen handikoa da, esaterako, irakasleen ikuspegitik egiten bada. Eskola batean lan egiterakoan haien geletan familia desberdinak dituzten hurrekin lan egin beharko dute eta horretarako, baliabideak ezinbestekoak izango dira, ume bakoitzak bizi duen egoera ulertzeko. Baliabide horien artean, liburuak egon daitezke, konkretuki, haur literatura. Haurrei haien familia-motak beste modu batez erakusteko nahiarekin erabili ahal direnak. Irakasleek ez ezik, familiek ere horrelako baliabideak erabiltzeko gaitasuna izango dute azaltzeko nola familia-mota bat baino gehiago existitzen den eta batez ere, argitzeko horiek denak familiak direla. Eta, batez ere, onartu behar direla.

## **4. MARKO TEORIKOA**

### **4.1. Familia.**

Familiaren kontzeptua definitzeko modu bakarra ez dago. Pertsona bakoitzak modu batean definituko zuen baina azalpen guzti horiek harremanean duten terminoa 'unibertsala' da, hau da, mundu osoan gertatzen den egoera bat. 'Hiru' izeneko blegean horrela definitu dute: familia erakunde unibertsal bat da, kultura guztietan dagoena. Non bakoitzak bere nortasun indibiduala eraikitzeko aukera duen.

Beste definizio bat proposatzen du Tania Abelek bere lanean, Eustat web orrialdera erreparatuz.

'familia pertsona talde bat da, normalean ahaidetasun-lotura dutenak (odolekoa edo politikoa), edozein gradutakoa, bizitza elkarrekin egiten dutenak, eta normalean etxebizitza oso bat okupatzen dutenak'. (Abel, 2014: 5)

#### **4.1.1. Familien sailkapena**

Beti egon den bizitza modu bat da eta denborarekin aldaketak jasotzen joan da. Kultura bakoitzak modu desberdin batean ulertzen ditu familiak eta hauek zein pertsonak eta zenbatek osatzen duten, beraz, ez dira beti berdinak izaten. Nahiz eta desberdintasun hori egon, aspaldian, familiak haien etxe-bizitzetara begira sailkatzen ziren. Sailkapena hurrengoa da:

1. Familia neolokala: Kasu orokorra eta ohikoena da gizarte industrializatuetan. Honetan, bikotekideek haien familien etxe-bizitza utzi eta etxe propio batera joaten dira.
2. Familia matrilokala: Gizarte matrilinealetan ematen da. Kasu honetan, bikotea emaztearen senideekin bizi da.
3. Familia patrilokala: Baserrietan ematen da kasua non semeak aitaren ondasunak jasotzen zituen. Emakumea da haren etxea utzi behar duena senarraren senideekin bizitzeko.

Sailkapena aurrekoa izanda, ezagutzen zen familia mota bakarra tradizionala litzateke, hau da, gurasoak (aita eta ama) eta haien seme-alabak. Denboraren poderioz gauzak aldatzen joan dira eta gizarte modernoago honetan, beste familia-



mota batzuek haien lekua aurkitu dute. Nahiz eta aurrera pausu hori emanda egon, beste gizarte batzuetan gauzak oraindik ez dira hain aurreratuak eta tradizionalismoan bizi dira oraindik.

Aipatu dugun familia tradizional hori izaeraz patriarkala dela pentsa genezake, alegia, aita etxe-burutzat aritzen delako eta ama, aldiz, etxeko lanez eta zaintzaz arduratzen da. ‘Hiru’ blogak azaldu duen bezala, familiako kide guztien biziraupena aitaren eskuetan dago. Antzina sinesmen erlijiosoa oso handia zenez, familia apurtu zezakeen gauza bakarra heriotza zen. Beste alde batetik, familia modernoagoa daukagu. Mota honen kasuan, emakumearen rola aurrera egin du gizarte industrializatuarekin batera. Emakumeek etxetik kanpo lan egin dezakete soldata baten truke. Horrek ere ekarri du seme-alaben kopurua behera egitea. Sinesmena erlijioan ez da hain zorrotza, aukera dago sinesteko edo ez sinesteko. Hori dela eta, posible da bikote baten lotura erlijiosoa izatea baina, ez da derrigorrezkoa. Ezaugarri nagusia eta garrantzitsua aurrerapen honetan ‘independentzia’ izango zen.

Orain dela urte batzuk arte, familia tradizionalaren barruan onartzen zen bikote mota bakarra emakume batek eta gizon batek osatutakoa da erlijioa horrela adierazten duelako. Gaur egun, familia tradizionalaz aparte, sexu bereko bikoteak ere onartuta daude gizartean (berriro ere, ez gizarte guztietan). Danimarka izan zen munduan lehenengoa sexu bereko bikotekideak modu zibilean onartzen 1989an, baina, 2012.urterarte parlamentuak ez zuen modu erlijioso eta zibilean onartu egoera hori. Espainiaren kasuan, laugarrenak izan ziren sexu bereko bikoteak onartzen. Danimarka, Belgika eta Kanada dira lehenengo postuak lortu zituztenak eta herrialde honetako legea 2005eko uztailaren 3an argitaratu eta indarrean sartu zen. Beraz, Danimarkan baino lehenago atera zuten lege ofiziala (RTVE, 2019). Badaude ere ezkondu nahi ez diren bikoteak eta izatezko bikoteak deitzen zaie hauei. Elkarrekin bizi diren pertsonak eta seme-alabak izan dezaketenak baina lotura erlijioso edo zibila eduki gabe. Lotura hori litzateke desberdintasun bakarria bikote ezkondua eta izatezko bikotearen artean.

#### 4.1.2. Familia-mota posibleak.

Nerea Babarrok bere blogean hainbat familia mota aurkezten ditu, gure gaur egungo gizartea osatuko luketenak:

- Jatorrizko-familia: Gurasoek gehi seme-alabak osatzen dute.



- Familia-zabala: Gurasoak eta haien seme-alabak aparte, beste familia kide batzuk ere badaude. Esaterako, izeko-osaba, lehengusuak, etab.
- Familia-nuklearra: Jatorrizko-familia deritzo baina nukleoaren parte izan daitezkeen aitona-amonak sartzen dira honetan.
- Berreraikitako-familiak: helduek dibortzio batetik igaro dira aurretik eta gero elkartu egin dira beste norbaitekin, hau da, beste nukleo familiar bat osatu dute.
- Familia gurasobakar: honetan, ama edo aita bakarrik dago bere seme-alabarekin edo seme-alabekin.
- Familia ugaria: nukleo familiar bat non gurasoek hiru seme-alaba edo gehiago dituzten.
- Familia homoparentala: gurasoak sexu berekoak dira.
- Familia adoptiboa: familia batek ume bat adoptatzen duena, haiek seme-alabak ezin dituztelako izan edo horrela nahi izan dutelako. Gurasoen rola bete beharko dute momentu oro.
- Abegi-familia: Ohikoa da nahastea familia adoptiboarekin, gakoa da haurrek zenbat denbora ematen duten familia mota bakoitzarekin. Kasu honetan, haurren guraso biologikoen egoera dela eta, umeak abegi-familia batekin bidaltzen dituzte bitartean. Aldi baterako da. (Babarrok, 2019)

Nerea Babarrok proposatzen dituen familia motak ez dira existitzen diren guztiak. Dibortziaz dauden gurasoen kasua ere badago. Kasu honetan, lehen ezkondata zegoen bikotea banandu egin da eta bakoitzak bere bizitza egiten jarraitzen du. Seme-alabek etxe bizitza batetik bestera igaro beharko dira ezarritako denbora epe batzuk zehaztuz eta jarraituz. Horretaz aparte, bakarrik bizi diren pertsona kopurua gorago doa urteekin. Bakarrik bizi dena eta seme-alabarik ez dituen izango litzateke hau.


Familia mota asko daude gure gaur egungo gizartean baina posible litzateke familia mota gehiago agertzea denborarekin? Erantzuna baiezkoa da.

Aipatu gabe geratu den metodoa intseminazio artifiziala da. Metodo honekin aukera asko daude, adibidez, bi emakumek osatzen duten bikotean haietariko batek gizon bati esker medikuak eragiten duen haurdunaldia eta modu horretan, amak bihurtuko dira. Beste aukera bat izango litzateke ordezkari amak. Espainian ez da legezkoa baina munduko beste herrialde batzuetan aukera badago. Hauek lagungarriak izango litzateke, batez ere, bi gizonek aitak izan nahi badute. Gutxienez, haietariko bat lotura biologikoa izango zuen haurrarekin. Ordezko amen metodoa, normalean, diru truke izaten da (haurdun geratuko den emakumeak dirua irabaziko

du). Beste alde batetik, gertatu izan da bikote batean, gizon eta emakume, gizona hiltzea eta behin hilda dagoela bere haziak emakumearen obuluetan jartzea. Modu horretan, bikotekideak bere hildako maitalearen seme-alaba izango luke (Valdivia, 2008). Aukera guzti horiek ez dira oraindik hain ezagunak edo gutxienez ez dira asko aipatzen.

#### 4.2. Familia motak Euskadin.

Familia mota desberdinen kopurua aztertzeko Eustat web orrialdean egindako azterketak baliagarriak izan dira. Bertan, 2001. urteko datuen arabera sei familia mota soilik aztertzen dira. Handik aurrera ez dira azterketa berriak jaso webgunean. Datu-base horretan argitaratutako datuak hurrengo grafikoan azaltzen dira.



Grafikoan ikusten ditugun zenbakiak Euskadiko familia kopuruei egiten die erreferentzia. Gero, kolore desberdinak (urdina, grisa, laranja) herri bakoitzari eta azkenik, zutabe-atal bakoitzak familia-mota desberdin bati.

Grafikoan agertzen den bezala, Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan familia tradizionalak dira ohikoena oraindik. Ondoren, gauzak aldatzen joaten dira. Adibidez,

Bizkaian bakarrik bizi diren pertsona kopurua nahiko altua da, Arabarekin konparatuz gero.

Datu konkretuak ondorengoak dira:

Bizkaian, 2001.urtean bizi ziren familia kopurua 400.403 zen. Haien artean, bakarrik bizi ziren pertsonak %19a hartzen dute eta familia konposatuek %3a. Bikotean bizi diren familia kopurua baina umerik ez dituztenak %18a hartzen du eta familia tradizionalak, aldiz, %45a. Ondoren, familia monoparentala agertzen da. Honek %11a hartzen du baina horietariko %2ak aitarekin bizi diren familiei egiten die erreferentzia eta beste %9ak amarekin bizi diren familiei. Azkenik, familia nuklearra da ez-ohikoena, %1a hartuz.

Arabian, urte berdinean, 102.651 familia bizi ziren. Horietariko %20 etxean bakarrik eta %3 familia konposatuen parte ziren. Elkarrekin bizitzen diren bikoteak umerik gabe %18a hartzen du eta aldiz, tradizionalak %44a. Ondoren, familia monoparentala daukagu %11 hartzen duena. Horietariko %2a aitarekin eta %8a amarekin. Azkenik, familia nuklearra daukagu, kasu honetan ere, %1 hartuz.

Gipuzkoan, egoera berdinean, %21 bakarrik bizi dira, %3 familia konposatuak dira eta umerik gabe bizi diren bikoteek %18a hartzen dute. Familia tradizionala %42k osatzen dute. Familia monoparentalen kasuan, %2a aitarekin bizi dira eta %9a amarekin batera. Baina guztira %11 hartzen dute. Azkenik, familia nuklearren kasuetan populazioaren %1 hartzen du, aurreko bi kasuetan bezala.

Datuak orain dela 19 urtekoak direla kontuan hartuz, datuak gora joan ez direla pentsatzea ezinezkoa litzateke. Gainera, azken hamarkada hauetan gertatu izan da aldaketa nagusia gure gizartean, beraz, aldaketa horrek datu hauetan eragina izan du ziur asko.

#### **4.3. Adopzioa.**

Pertsona baten gurasoak izateko edo bihurtzeko aurrera eramaten den prozesu judiziala da. Adin txikikoaren eskubideak familia berriaren esku geratuko dira legez eta prozesuan, adoptatua izan den pertsonaren abizenak ere aldatu egingo dira.

Adopzioa badirudi gero eta familia gehiagoren aukera bihurtu dela denbora joan ahala, baina, zeri deitzen diogu adopzioa? Edo Nazioarteko adopzioa?

Adopzioa bi motatakoa izan daiteke, aurretik aipatu dudan moduan. Alde batetik, herrialde bereko adopzioa. Honen helburua litzateke adopzioa aurrera

eramango duen pertsonak bere herrialde berdineko norbait adoptatzea. Beste alde batetik, nazioarteko adopzioa daukagu. Honetan, adopzioa egingo duenaren herrialdekoa ez den (atzerrikoa) haur edo gazte bat adoptatzeari egiten dio erreferentzia.

Adopzioen kopurua gora joan izan da denbora luzez eta badaude zenbait gertakari datua horrela izateko. Lehenengoa eta agian garrantzitsuena izango zen guraso izateko nahia. Guraso bihurtzeko desiorik gabe prozesu hau ezinezkoa izango litzatekeelako. Horren ondorioz, bi bide nabarmentzen dira nagusiki. Seme-alaba biologikoak izateko arazoak edo ezgaitasuna eta egoera horretan bizi den pertsona (haur edo nerabe) bati bizi baldintza hobe bat eskaintzea.

Kasua ematen denean, adopzioa egiterako orduan, haurrak dira egoera hobeak jasotzen dituztenak. Haur gehiago adoptatzen dira nerabe baino.

‘Adopción.org’ web orrialdea jasotzen du adopzioarekin zerikusia duen informazioa eta Espainiako kode zibilean oinarritzen da. Bertan agertzen da jakin beharreko informazio guztia, konkretuki, 175. artikuluan dauden – adopzioa aurrera eramateko – bete beharreko baldintzak. Haien artean, hurrengoak:

- Adopzioaren prozesua aurrera eramaten duen pertsonak (bikotean baldin bada, soilik bikotekide batek) 25 urte edo gehiago izatea.
- Adoptatzaile eta adoptatuaren arteko adin-tartea 40 urte baino handiagoa ez izatea.
- Adoptatzeko eskaera behar den moduan entregatzea adopzioen erregistroan.
- Adoptatzailearen egoera – fisiko, sozial, psikologiko eta ekonomikoa – onuragarria izatea.
- Ez da ontzat hartuko adoptatzaileek baldintzatzen badute adopzioa haur edo gazteen jatorria, izaera fisikoa edo arrazagatik.

Webgune berean aurkezten dira kontuan hartzeko epe batzuk adoptatzerako orduan. Adoptatzailea bizi den herrialde bereko haur edo gazte bat adoptatzeko nahia badauka (kasu honetan, Espainian) 9 urteko prozesua jasan izan beharko du. Ekialdeko pertsona bat adoptatzeko denbora laburragoa da baina 8 eta 20 hilabete arteko prozesua bizi behar da. Hego Ameriketako adopzio batek 8 eta 30 hilabete arteko denbora behar du eta Asiako haur edo gazte bat adoptatzeko prozesuak, 8 eta 15 hilabete artean (García, 2008).

Dena den, beherakada handi bat jaso duela erakusten dituzte datuek. Azkenengo hamarkadan adoptatuen pertsonen kopurua 5.541tik 531ra jaitsi da, hau

da, %90a. Horren kausa nagusia itxaropeen denbora izaten da, luzeegia dena (Alvarez, 2019).

Ikerketa batzuek diote 60.000 haur eta gazte, adin gutxikoak, adoptatuta izan zirela 1998 eta 2011 urteak bitartean. Haietariko %24k Txinatik zetozen, %20 Espainiatik eta %19a Errusiatik etorri ziren (Ley, 2015). Datu horiek kontuan harturik, argi dago beherakada handia egon dela 2011. urtetik gaur egungo 2020ra.

#### **4.4. Haur Literatura.**

Haur literatura ez da beti existitu den zerbait. Egia esan, nahiko berandu heldu zen gure eskuetara eta hasiera batean nahiko didaktikoa zen haurrei zuzendutako edozein liburu mota. Dena bezala, denbora aurrera joan ahala, materialak eta baliabideak hobetzen joan direnez, edukien kalitatea ere hobetu egin da. Helburu bakarra ez da zerbait didaktiko erakustea baizik eta gozamenaren bila doala ere.

##### **4.4.1. Definizioa**

Haur literatura definizio ugari jaso duen terminoa da. Euskaltzaindiak haur literaturaren definizio batzuk bildu ditu bere web orrialdean. Horien artean, Xabier Etxanizek emandako definizioa ikusgarri dago. Bere hitzetan horrela definitu daiteke haur literatura, 'haur eta gazte literatura, haurrentzat edo gazteentzat idatzia izan ala ez izan, haiei atsegina sentiarazten dien testu multzoa da. Testu multzo horrek, gainera, hizkera berezia izan beharko luke'. (Euskaltzaindia, 2008: h)

Definizio askok harremanak dituzte haien artean, ideiak edo hitzak. Leticia Diazek (2014-2015) bere blogean azaldu du nola haurrak eta gazteak diren, literatura honen hartzaile moduan, haur literatura definitzen dutenak. Baita literatura mota hau ez dela soilik haurrek gozatu dezaketen zerbait baizik eta helduek ere disfrutatuta dezaketela. Hori gertatzen bada, orduan benetako haur literatura deritzo.

##### **4.4.2. Familien aniztasuna Haur eta Gazte Literaturan.**

Literaturan gehien erabili izan den familia mota tradizionala izan da. Ulergarria da kontuan hartuta hori dela gure gizartean urte luzez ezarrita egon den familia bikainaren irudia. Denborarekin liburu gaurkotuagoak argitarazten hasi dira eta

izenburu batzuk klasikoak dirudite, esaterako, *Aitorrek bi ama ditu*, M<sup>a</sup> Jose Mendietaren liburua Jon Zabaletak ilustratua.

Munduan zehar idazle askok haur eta gazte literaturaren bidea aukeratu izan dute eta prozesu horretan, batzuek, familien trataera txertatu dute haien obretan. Adibide ona litzateke J.M. Barriek 1906. urtean idatzitako *Peter Pan eta Wendy* liburua. Literatura liburu horretan familia tradizionala erakusten da, Ingalaterran Viktoriar aroan bizi zen egoera azaltzeko. Nahiz eta, behin hiru anai-arrebak etxetik alde egiten dutenean Peter Panekin Sekula Betiko Lurraldera joateko, han ere familia tradizionalaren eredua ezarri nahi duten, Wendy amaren rola hartuz eta Peter, aldiz, aitarena. Familia tradizionalaren eredua jarraitzen ez duten literatura liburu klasikoak badaude ere. Adibide bat izan daiteke Charles Dickensek idatzitako *Oliver Twist* (1837) eta *David Copperfield* (1850), non gurasoak ez diren agertzen eta protagonistek aurrera egin behar dute bakarrik. Beste batzuetan, gaixotasun baten poderioz aita hil egiten da eta ama da protagonista aurrera eraman behar duena, familia zaintzen. Horren adibidea litzateke Robert Louis Stevensonek 1883 idatzitako *Altxor uhartea* (Orlando Rodriguez, 2010).

#### **4.5. Gai berdina aztertu duten lanak.**

Hainbat familia motaren azterketa edo ikerketa egitea ez da soilik literaturaren arlotik aztertzen den egoera bat, baizik eta psikologoek, soziologoek eta kazetariak gai hau hartzen dute abiapuntu. Beti ere haien arlotik.

Haur Hezkuntzako ikasketak egiterakoan oso ohikoa da familiaren terminoa entzutea behin eta berriro, alegia, haur batentzako familia ezinbestekoa sortatzen zaiolako. Familia-mota desberdinei erreparatzen zaie eta aztertzen da horren inguruan. Hori dela eta, ez da arraroa pentsatzea ikasketa hauek egin dituen beste ikasle batek, literatura maite duena, gai berdina aukeratzea, alegia, familia-motak haur literaturan.

Kasua Sevillan eman da, bertako unibertsitatean hezkuntzarekin zerikusia zuten ikasketak egin dituen emakume batek, hain zuzen ere. (Gallego Acosta, 2014-2015)

## 5. IKERKETA

### 5.1. Hipotesiak

Txosten honen atal aztertzailearen helburua litzateke ikustea zer nolako tratamendua jasotzen duen familiak haur literaturan.

Haur literaturan familiek garrantzi handia izaten dute gehienetan, nahiz eta liburu batzuen parte ez izan. Beraz, atal honetan aztertuko da zein den literaturaren jarrera gizarteak jasan duen aldaketaren gainean. Gaur egungo familia-mota desberdinak liburuetan azaltzen diren edo orain arte egin den moduan, familia tradizionalarekin jarraitu duten – hau da, aita, ama eta seme-alabak – .

Horretarako, liburuaren analisiarekin hasi baino lehen, subjektiboki pentsatutako hipotesi batzuk sortu dira. Hauek dira:

- Familia tradizionala da orokorra.
- Nahiz eta guraso biak izan soilik bat agertzen da.
- Familia lantzeko liburu berezietan gehien ematen den kasua ama gehi seme-alaba da.
- Amak etxeko lanetan aritzen dira (garbitu, sukaldatu, erosketak, etab).
- Aita jolasean agertzen da seme-alabarekin.
- Ama zaintzan aritzen da (haur zein aitona-amonena).
- Aitak etxetik kanpo lan egiten du.
- Aita dirua ekartzen duena da.
- Eskolako gauzetan ama aritzen da (etxeko-lanak edo bilerak irakasleekin).

Hipotesi hauek liburuetan eman diren edo ez aztertuko da eta erantzun horiek ondorio batzuk ateratzeko balio izango dute.

### 5.2. Metodologia

Txostenak zer nolako egitura izan behar zuen adostu ondoren, ikerketa izan zen egin beharreko lehenengo atala. Horrek lana handia eta denbora luzea behar izango zuelako. Hori jakinda, eta azterketa zehatzarekin hasi baino lehen, arestian aipatu den moduan, liburuaren istorioetan gerta zitekeenari buruzko hipotesiak sortu izan dira, amaitu ondoren aurreiritzi subjektibo horiek benetan gertatu diren edo ez hausnartzeko. Dena den, bi liburutegiren laguntza eskatu da liburuaren aukeraketa

egiteko. Basauriko (Bizkaia) liburutegiak izan dira. San Migueleko liburutegia eta Ibaiganeko Haur Liburutegia. Behin liburuen zerrenda izanda, horiek aztertzea izan zen hurrengo pausua. Liburuen aukeraketaren barruan hainbat haur literatura liburu agertzen dira, konkretuki, haurrek etxera gehien eramandako 30 liburuak (beraz, irakurrienak) eta 15 liburu familien aniztasuna lantzen zutenak irakurri dira. Liburuen azterketa horren datuak jasotzeko fitxa batzuk bete dira.

Eman beharreko hurrengo pausua praktikara egokitzen zaion teoria azaltzea izan zen. Horretarako, erabili den metodologia, batez ere, informazioaren bilaketan oinarritzen da. Bilaketak, nagusiki, Interneten egin dira. Informazio esanguratsuena blogetatik eta artikuluetatik jaso da. Kasu batzuetan, hainbat iturritatik ateratako informazioari erreparatuz, gai nagusiak jasotzen, iritzi pertsonal batekin batera azaltzen dira txostenean. Bestetik, testu edo adituen hitzak literalki txertatu dira mezua ondo plazaratzeko eta argia izateko (beti ere, aipamena egiten lanean bertan eta bibliografiaren atalean). Prozesu honek (informazioaren bilaketa) denbora luze hartu du hainbat iturriren analisia eta behin baino gehiagoko irakurketa egitea beharrezkoa izan delako.

Beraz, egin nahi den analisia eta azterketa hori litzateke baina ez dago ziurtasunik emaitzak onak izango direnik. Saiakera egingo da eta ikusiko da zer gertatzen den jarraian.

### **5.3. Analisia**

Liburuen analisia betetzeko erabili diren fitxak jarraian agertzen dira. Lehenengo fitxan umeez etxera eramandako 30 liburuen zerrenda dago, non azaltzen den zein familia-mota erakusten duten. Bigarrenean, analisi mota berdina egingo da, baina, kasu honetan jakinda familiak zehazki lantzen dituzten liburuak direla. Ondoren agertuko diren taulak (liburu bakoitzeko taula bat) aurretik aipatutako hipotesiak bete diren edo ez aztertzeko balioko dute. Bakoitzaren aukera 'x' batekin markatuta dago, erantzuna adierazten duena.

A Corpusa. Haurrek etxera eramandako 30 liburuak.

B Corpusa. Familia motak espezifikoki lantzen dituzten 15 liburuak aztertzen.



<b>FAMILIA MOTAK (A corpusa)</b>	<b>Ama+Aita+Seme-alabak</b>	<b>Aita+Seme-alabak</b>	<b>Ama+Seme-alabak</b>	<b>Aita+Aita+Seme-alabak</b>	<b>Ama+Ama+Seme-alabak</b>	<b>Ama+Aita+Adoptatua</b>	<b>Beste familia kide + Haurrak</b>	<b>Familia gabekoak</b>	<b>Beste</b>
<b>LIBURUAK</b>									
1. Behi zorionsuaren errezeta									X Ez da familiarik azaltzen
2. Junglaren hatsa								X	
3. Hartzek ez dute irakurtzen									X Ez da familiarik azaltzen
4. Gaur ez zara jolastuko									X Ez da familiarik azaltzen
5. Kandido eta besteak									X Ez da familiarik azaltzen
6. Hipopo ipurtandia									X Ez da familiarik azaltzen
7. Super botereen liburu aparta									X Ez da familiarik azaltzen
8. Ez! Esan zuen zalduna	X								
9. Zorionsu izateko errezeta									X Ez da familiarik azaltzen

10. Mog eta umetxoa	X								
11. Saguen bidaia									X Familia osoa (gurasoak, aiton-amonak, izeko-osabak, etab)
12. Zuhaitzera igo zen behia									X Ahizpak
13. Printsesa eta ergela	X								
